

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Karlos III.aren Gurutzea emango die zazpi pertsona eta erakunderi Nafarroaren irudia nabarmentzen laguntzeagatik

Aralar Mendi Elkarte, Nafarroako DYA, Humberto Bustince, José Ulibarrena, Julián Retegi, Mirentxu Purroy eta Javier Ochoa izan dira saridunak

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 17

Foru Gobernuak gaur Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea banatu die zazpi pertsona eta erakunderi, dagozkien jardueren bidez, "Foru Komunitatea garatzen, hedatzen eta ezagutarazten nabarmen laguntzeagatik". Zehazki, zenbait foru-dekretu onetsiz, hauei banatu zaie kondekorazioa: Aralar Mendi Elkarte, "Artzai Eguna" antolatzen duena; Nafarroako DYA bide-laguntza elkarte; Humberto Bustince, zientzialaria; José Ulibarrena, eskultorea; Julián Retegi, pilotaria; Mirentxu Purroy, kazetaria eta Javier Ochoa, enologoa. Kondekorazio hori datorren ekainaren 17an egitea aurreikusita dago.



Nafarroako Carlos III. Prestuaren Gurutzea.

Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea kondekorazioa 1997. urtea sortu zuen Foru Gobernuak, Nafarroaren aurrerapenean eta Komunitatea kanpoan ezagutzera ematen nabarmen lagundu duten pertsonak eta erakundeak saritzeko. Sariak hain zuzen Karlos III. Noblearen izena hartu zuen. Nafarroako erregeen artean nabarmendu zen, bere izaera baketsu eta adiskidetzailarengatik, kulturaren eta artearen alde egindako ekimenengatik eta Europako gainerako gorteekin bake eta adiskidetasun harremanak ezartzeagatik.

Kondekorazioa gurutze esmaltatu bat da, eta Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen den ezkozko errege-zigiluan agertzen den Karlos III. eseriaren irudia berregiten da, "Karolus regis navarre" legendaz inguratuta. Atzealdean Nafarroako ezkutua dago, "Nafarroako Foru

Komunitatea" adierazpenaren eta "Cruz de Carlos III el Noble de Navarra legendaren gainean.

Sariak

Horrela, Gobernuak [Aralar Mendi Elkarteari](#) eman dio saria, "Nafarroako tradizioak eta artzaintza eta gastronomia bereziki sustatzen eta zabaltzen laguntzeagatik". Artzai Eguna antolatzen du eta aurtengoa 50. edizioa izango da.

[Nafarroako DYA](#)ri dagokionez, Gobernuak hau azpimarratu du: "Nafarroako herritarren segurtasuna bermatzen lagundu du, Foru Komunitate osotik banatuta dauden zazpi oinarrien jardueraren bidez. Horrez gain, prestakuntza eta aholkularitza profesionala eskaini die boluntarioei eta herritarrei oro har".

[Humberto Bustince Sola](#)ri dagokionez, Foru Gobernuak hau azpimarratu du: "irakaskuntza eta ikerketa sustatzearen eredu bat da, I+G+b jarduerari aplikatuta, beraz, ikerlan zientifikoak berritzen eta Nafarroan ezagutza eta ikerketa garatzen lagundu du".

[Joxe Ulibarrena Arellano](#)ri dagokionez hau nabarmendu du: "Nafarroako kultura bultzatzen lagundu du, jarduera sortzaile eta gizarte-talde baten bizimodua gisa".

[Julián Retegui Barbería](#)ri buruz hau adierazi du: "antzinako kirola den esku-pilota sustatu eta zabaldu du, Nafarroan bertan eta Nafarroatik kanpo garatzen eta hedatzen lagunduz".

[Mirentxu Purroy Ferrer](#)ri dagokionez, Gobernuak azpimarratu du "informaziorako eskubidea sustatu, bultzatu eta garatu" duela.

Azkenik, [Javier Ochoa Martínez](#)ri dagokionez, hau adierazi du Gobernuak: "Nafarroan garrantzitsuenetako bat den nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzen, bultzatzen eta garatzen lagundu du, eta Foru Komunitatearen izena mundu enologikoaren sektorerik ospetsuenetara eraman du".